



Arartekoaren 2014IR-2193-13 ebazpena, 2014ko apirilaren 10ekoa. Beraren bidez, herritar batek egindako kexan egindako jarduketari amaiera ematen dio. Herritar horrek ezintasun iraunkor osoa dauka eta Gipuzkoako Foru Aldundiak %33ko desgaitasuna automatikoki ez aitortzearekin ez zegoen ados.

Aurrekariak

1. Interesdunak Arartekoaren esku hartzea eskatu zuen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailaren 2013ko apirilaren 19ko ebazpenarekin ez zegoelako ados. Ebazpen horrek %12ko desgaitasun maila aitortu zion.

Erreklamazio egileak alegatu duenaren arabera, abenduaren 2ko 51/2003 Legearen (desgaitasuna duten pertsonen aukera berdintasunaren, bazterketa ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren legearen) lehenengo artikuluko bigarren idatz-zatia aplikatu behar zitzaion, eta %33ko desgaitasun maila automatikoki aitortu.

2. Informazio eskaera bat zuzendu genion sail horri, araudi hori aplikatzeari buruzko balorazio bat egin zezan. Adierazi genion, ebazpen horren testua ikusita (zehazki, "*pertsona horri minusbalio maila hori aitortzea*" dakarren zatia) komenigarria litzatekeela minusbalioa terminoaren ordez desgaitasun hitza erabiltzea honelako eruedetan, sail horrek beste formulario eta araudi batzuekin egin zuenez, 2006ko abenduaren 13ko Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa betez (Espainiar estatuak 2008ko maiatzaren 3an berretsia). Hori guztia desgaitasuna duen pertsonari balio txikiagoa inplizituki edo esplizituki ematea dakarren terminologia baztertzeko asmoz.

3. Sail horrek gure informazio eskaerari erantzun zion, honela:

"Ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliaezintasun handia onartua duten Gizarte Segurantzako pentsiodunei minusbaliotasun-maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren baremazioa ezarri gabe % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna onartzea eztabaidagai izan da egoitza judizialean, 51/2003 Legea indarrean sartu zenetik.





Zehazki, eta administrazio honi dagokionez, duela oso gutxiko aurrekarietako bat Gipuzkoako Foru Aldundiak 2007ko apirilaren 13an Auzitegi Gorenaren Lan Arloko Salaren aurrean aurkeztu zuen doktrina bateratzeko kasazio-errekurtsoa da.

Errekurtsio horren oinarrian dagoen demandari hasiera eman zitzaion Donostiako Lan Arloko 2. zenbakiko Epaitegian, eta horren kausa izan zen instantzia administratiboan % 33ko edo hortik gorako minusbaliotasun-mailaren onarpena ukatzea, nahiz eta auzi jartzailea Gizarte Segurantzako pentsioduna izan, ezintasun iraunkor osoa onartua izateagatik.

Aldundia alderdi demandatua den espedienteetan Donostiako Lan Arloko 2. zenbakiko Epaitegiak eta EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren Lan Arloko Salak emandako epaiak kontraesankorrak direla ikusita, eta aurkeztutako kasazio-errekurtsioan Gipuzkoako Foru Aldundiak aipatzen dituen, epaiak kontuan izanda, Auzitegi Gorenaren Lan Arloko Salak epai bat eman zuen 2008ko ekainaren 26an, doktrina bateratzeko kasazio-errekurtsioa onartzeko. Epai horren kopia gehitu dugu, izan ere, zuzenbideko oinarrietan azalduta daude Gizarte Politikako Departamentuak desgaitasun-maila abenduaren 23ko 197111999 Errege Dekretuaren baremazioan oinarrituta soilik onartzea justifikatzeko erabilitako argudioak.

Bigarrenez, Arartekoak erasota utzi du komenigarria dela Departamentuak erabilitako agiri-ereduetan minusbaliotasun terminoaren ordez desgaitasuna erabiltzea,. Nazio Batuek 2006ko abenduaren 13an onartutako eta Estatu espainiarrak 2008ko maiatzaren 3an berretsitako Pertsona Desgaituen Eskubideei buruzko Konbentzioan ezarritako aginduak betez.

Duela hainbat urte, Departamentuan erabilitako agiri-eredu guztiak berrikusi ziren, ereduak egokitu eta "minusbaliotasuna" terminoaren ordez "desgaitasuna" erabiltzeko asmoz. Kasu honetan argi ikus daitekeen bezala, berrikuspen hori ez zen behar bezain zehatza izan, eredwen bat osorik egokitu gabe geratu zelako. Ereduak berriro aztertzen ari dira, hemendik aurrera gorabehera han guztiz ezabatuta gera dadin".

4. Herritar horrek azaldu zigun, gerora, zenbait enplegu zentro berezitara jo zuela eta erantzun ziotela %33ko desgaitasun mailaren aitortzea aurkeztu behar zuela, foru erakundeak emana, nahiz eta berak ezintasun iraunkor osoa daukala frogatu zuen.



Gogoetak

1. Desgaitasuna duten pertsonen aukera berdintasunaren, bazterketa ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren legea (abenduarien 2ko 51/2003 Legea), desgaitasuna duten pertsonen eskubideen lege orokorraren testu bat egina onetsi zuen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak indargabetu zuena, indarrean zegoen auzitan dagoen ebazpena eman zen datan. Lege horrek, bere lehenengo artikuluko bigarren idatz-zatian, azaltzen du “lege honen ondorioetarako, desgaitasuna duten pertsonak izango direla ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun maila aitortu zaien pertsonak”. Nolanahi ere, ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna izango dute ondoko pertsonak: ezintasun iraunkorreko pentsioa (osokoa, erabatekoa edo ezintasun handia graduetan) aitortuta daukaten Gizarte Segurantzako pentsiodunak, eta zerbitzurako ezintasun iraunkorragatik edo ezereztasunagatik erretiroko pentsio bat aitortuta daukaten klase pasiboetako pentsiodunak. Desgaitasun gradua arauz ezarritako moduan frogatu behar da eta lurralde nazional osoan izango du balioa”.
2. Horrenbestez, artikulua horretan xedatutakoari eman behar zaion irismen zehatza zehaztu behar da, ondokoa adierazten duenean: *“nolanahi ere, ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna izango dute ondoko pertsonak: ezintasun iraunkorreko pentsioa (osokoa, erabatekoa edo ezintasun handia graduetan) aitortuta daukaten Gizarte Segurantzako pentsiodunak”*. Zalantzarik gabe, manua hitzez hitz interpretatzen badugu, arau horrek autonomia dauka, ezintasun iraunkorra, osoko graduan, daukaten Gizarte Segurantzako pentsiodunei desgaitasuna duten pertsonen izaera emateari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politika Sailak bere erantzunean esan duenez, Auzitegi Gorenaren ustez, *“nolanahi ere”* esarak, 51/2003 Legearen 1.2 artikuluan ageri denak, esan nahi duena da (desgaitasun maila gorabehera, eta lege honen ondorioetarako soilik) arauan dauden eskubideek ezintasun iraunkor osoa edo handiagoa daukaten pertsonen gainean eragin osoa izango dutela, eta horrek ez du esan nahi horregatik automatikoki desgaitasuna duten pertsona izango direnik legez, Desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen ondorioetarako, lehen aipatu den azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez indargabetua.





Ondorioen mugaketa 1.2 artikuluan abalaten da, hitzez hitz aurreikuspen hau sartzen duena: *“Lege honen ondorioetarako (...)”*. Horrek erakusten du, zalantzarik gabe, araua murrizgarria dela onura hau emateko orduan.

Ohiko lanbiderako ezintasun iraunkorra, osoko graduan, emateak ez du zertan ekarri behar ehuneko 33ko desgaitasun bat automatikoki aitortzea. Izan ere, pertsona baten murrizketa anatomiko edo funtzionala moderatua edo are arina izan daiteke oro har baloratuta, baina horrek ez du ekiditen egin ohi duen lana egiterakoan zenbait efektu eragozgarri izatea.

3. Auzitegi Gorenaren doktrinak, 2007ko martxoaren 21eko, 2007ko maiatzaren 29ko eta uztailaren 19ko, eta 2008ko urtarrilaren 29ko epaietan jasoa, besteak beste, erakusten digu ezintasun iraunkor osoa ez dela automatikoki homologatzen desgaitasunaren %33ko graduarekin ondorio guztietarako, auzitan dagoen ebazpena eman zen unean.

%33ko homologazio automatiko horrek ondorioak izango ditu, bestelako betekizun administratibo edo burokratikorik gabe, 51/2003 Legetik eratortzen diren kasu edo onura batzuk eskuratzen saiatuz gero soilik. Kasu horietan nahikoa litzateke ezintasun iraunkorreko lege-egoera frogatzea, arauan ezarritako graduetakoa batean, dokumentu edo baremazio gehiago exijitu gabe, desgaitasuna duen pertsonaren izaera portzentaje horretan aitortzeko.

51/2003 Legearen 2.1 artikuluan dagoen manuak, beraz, lege horren gairemu osoan erabateko eraginkortasuna zeukan, baina ez zen iristen desgaitasuna duen pertsonaren izaera modu orokorrean izendatzera.

Interpretazio bera eratortzen da abenduaren 1eko 1414/2006 Errege Dekretuaren edukitik, abenduaren 2ko 51/2003 Legearen ondorioetarako desgaitasuna duen pertsonaren izendapena zehazten duena.

Arrazoen azalpenean bertan, 51/2003 Legearen 1.2 artikulua horretan aurreikusitako desgaitasun gradurako asimilazioa frogatzeko modua zehazteko orduan administrazio publikoetan sortutako arazo berri eman da. Horregatik, ondokoa dakar 2. artikulua:

“1. A los efectos de lo dispuesto en la Ley 51/2003, de 2 de diciembre, el grado de discapacidad igual al 33 por ciento se acreditará mediante los siguientes documentos:



- a) Resolución o certificado expedidos por el Instituto de mayores y Servicios Sociales (IMSERSO) u órgano competente de la Comunidad Autónoma correspondiente.*
- b) Resolución del Instituto Nacional de la Seguridad Social (INSS) reconociendo la condición de pensionista por incapacidad permanente total, absoluta o gran invalidez.*
- c) Resolución del Ministerio de Economía y Hacienda o del Ministerio de Defensa reconociendo una pensión de jubilación o retiro por incapacidad permanente para el servicio o inutilidad.”*

Ondorio horietarako, inola ere ezin izango da exijitu IMSERSOren edo autonomia erkidegoko organo eskudunaren (gure kasuan, foru erakundearen) ebazpena edo ziurtagiria errege dekretu honetako 1.2 artikuluko a) eta b) paragrafoetan aipatzen diren pentsiodunen ehuneko 33ko desgaitasun gradua frogatzeko.

Eta, horrenbestez, %33 baino gehiagoko desgaitasun gradua izateak desgaitasun gradua aitortzeko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedurarako 1971/1999 Errege Dekretuan ezarritako balorazio mekanismoak funtzionatzen jartzeko eskatzen du.

Aurrekotik ondorioztatzen da homologazioa automatikoa dela 51/2003 Legearen eremuan eta haren aurreikuspenetan soilik, inola ere ez ondorio guztietarako. Baina gainera, ondorioztatzen da desgaitasun egoera horietan dauden eta %33ko desgaitasun izaera soil frogatu nahi duten pertsonak, lege horren aplikazio eremu horretan, egin behar duten jarduketa bakarra desgaitasun iraunkorraren egoera frogatzea dela.

Baina desgaitasun adierazpen hori lege honetako kasuak ez diren kasuetarako edo %33 baino gehiagoko portzentajerako lortu nahi bada, abenduaren 23ko 1971/99 Errege Dekretuaren (desgaitasun gradua aitortzeko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoaren) balorazio sistemak erabili behar dira. Horiek, arrazoitu dugunez, ez dira tazituki indargabetutzat jo behar, aipatutako homologazio kasu zehatzetatik kanpo beren beharrezko funtzioa bete behar baitute.

4. Azkenik, esan behar dugu Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko lege orokorraren testu bat egin onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak arau bakar batean integratu dituela lege hauek: Desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzeari buruzko 1982ko 13/1982 Legea;



Desgaitasuna duten pertsonen aukera berdintasuneko, bazterketa ezeko eta irisgarritasun unibertsaleko 2003ko 51/2003 Legea; eta desgaitasuna duten pertsonen aukera berdintasuneko, bazterketa ezeko eta irisgarritasun unibertsaleko urraketa eta zehapen araubidea ezarri zuen 2007ko legea.

Testu honekin, dagoen araudia eguneratu eta harmonizatu nahi izan da, arestian aipatu dugun desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko nazioarteko itunean ezarritako irizpideei jarraiki.

Azpitarragarria da eskubideen titularrei buruzko 4.2 artikularen egungo idazketak hau ekartzea: *“además de lo establecido en el apartado anterior, y a todos los efectos, tendrán la consideración de personas con discapacidad aquellas a quienes se les haya reconocido un grado de discapacidad igual o superior al 33 por ciento. Se considerará que presentan una discapacidad en grado igual o superior al 33 por ciento los pensionistas de la Seguridad Social que tengan reconocida una pensión de incapacidad permanente en el grado de total, absoluta o gran invalidez, y a los pensionistas de clases pasivas que tengan reconocida una pensión de jubilación o de retiro por incapacidad permanente para el servicio o inutilidad”.*

Horrenbestez, arautu den desgaitasunaren definizioa bat dator itunarekin. Horrek eskubideen titulartasunari babes juridiko ematen dio eta, gainera, desgaitasun graduaren aitortpena, ondorio guztietarako, hauekin asimilatzen du: ezintasun iraunkorreko pentsioa (osokoa, erabatekoa edo ezintasun handia graduatan), eta zerbitzurako ezintasun iraunkorragatik edo ezereztasunagatik erretiroko pentsio bat aitortuta daukaten klase pasiboen pentsioa.

Ondorioak

1. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailaren jarduketa 2013ko apirilaren 19ko ebazpenari buruz (kexagileari %12ko desgaitasun gradua aitortu ziona) ez zen okerra izan ezintasun iraunkor osoa %33ko desgaitasun graduarekin automatikoki ez homologatzeari dagokionez.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Saila ados dago minusbalioa terminoaren ordeztasun hitza erabiltzearekin eredu, formulario eta araudietan, honezkero hala egiten baitu, 2006ko abenduaren 13ko Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioko aginduak betez. Hori guztia, desgaitasuna duen pertsonari balio txikiagoa



inplizituki edo esplizituki ematea dakarren terminologia baztertzeko asmoz.

Kasu honetatik ondorioztatzen denez, berrikuspen hori ez zen erabatekoa izan, eta ereduren bat ez zen guztiz eguneratu. Sailak esan du ereduak berriro aztertzen ari direla, aurrerantzean arazo hau guztiz konpontzeko.

3. Enplegu Zentro Berezi batzuek ezintasun iraunkor osoa edo handiagoa daukaten pertsonen %33ko desgaitasunaren aitortzea (Gipuzkoako Foru Aldundiak emana) exijitzea dela-eta, egokia dirudi zentro horiei jakinaraztea beraietan sartzeko betekizun gisa ezintasun iraunkorreko egoera hori (edo handiagoa, bidezkoa bada) frogatzea onartzeko legezko betebeharra daukatela.

Ebazpen hau Lanbideri jakinarazi behar zaio, zentro horiei hemen adierazitakoa jakinarazteko neurri egokiak har ditzan.